



Prever plana mugagabea da, hau da, ez da finkatu dirulaguntzen eta neurrien bukaera datarik. Planaren helburua auto zaharren portzentaia jaistea da, Espainiako autoen herenek (bost milioi inguru) hamar urte baino gehiago baitituzte; auto guztien laurdenek, berriz, hamabost urte baino gehiago.



Hamar urte baino gehiago dituzten autoak onartzen ditu Prever planak. EDURNE KOCH

Prever plana ona da ibilgailuen sektorearentzat, «baina salmentak ez dira izugarri igoko. Ideia ona da eta sektorea zuzpertzten lagunduko du, baina autogileek ere beharpenak eskaini behar dituzte planaren eragina benetan nabaritzeko».

Juan Mari Lopez Osarentzat gaur egun ez du zentzurik hamar urtetik gorako auto bat edukitzeak, «auto horietan doazenen segurtasuna arriskuan jartzen baita etengabe».

Beraz, aukera ona da hainbeste arazo eta buruhauste sortzen dituen autoaren ordainetan berria erosteko. Dena den, oraingoz behintzat, Prever plana mugagabea da.

## Aholkuak

- ✦ **Arrekontua egin:** hau da, finkatu zenbat diru gastatu nahi den auto berria erosten. Komeni da arrekontua egiteko orduan behetik jotzean, gero autoaren zerbitzu osagarriak igo egiten baitute beti azken prezioa.
- ✦ **Auto mota aukeratu:** norberaren gustu edo zaletasunez gain, aintzat hartu behar da autoa zertarako behar den, batez ere motor mota (gasolina ala diesela) aukeratzeko orduan. Zenbat leku beharko den eta non gidatuko den, hirian ala errepidean... horiek ere kontuan hartu behar dira. Komeni da autoa probatzea.
- ✦ **Prezioak alderatu:** auto egileek prezio jakin bat gomendatzen diete saltzaileei, baina saltzaileek askatasun osoa daukate egokiak

iruditzen zaizkien prezioak ezartzeko. Beraz, saltzaile bat baino gehiagorekin hitz egin eta ikusi zeinek egiten duen eskaintza hobereana: beharpenak, zerbitzu osagarriak... Prezioak, beharpenak edo saltzaileak eskaintako gehigarriak tentuz aztertu. Gerta daiteke saltzaileak hasieran prezioa nahita puztea, negoziazioen beharpen handia egin duelako eta lortu dugulako sentsazioa emateko.


- ✦ **Berria erosi, zaharra saldu:** auto berria erosteko zaharra saldu behar badugu, auto berriaren prezioa eta zaharraren salmenta aparte negoziatu behar dira. Komeni da auto berriarengatik lor daitekeen guztia lortu ondoren saltzea zaharra, bestela saltzaileak beharpen txikiagoa egin batteza-

ke. Auto zaharra txatarretara bota behar bada ere bukaeran adierazi.

- ✦ **Stockak aintzat hartu:** saltzaileek hainbat auto edukitzen dituzte stockean eta horiek saltzea komeni zaie. Beraz, beharpen polita lor daiteke stockeko auto bat erosiz gero. Ez da erraza, stockeko autoaren ezaugarriak (ekipamendua, kolorea...) eta guk nahi ditugunek bat etorri behar baitute.
- ✦ **Epeak argi eta garbi:** autoa aukeratu ostean paperak betetzeko ordua iristen da. Agiritan argi eta garbi azaldu behar du noiz jasoko dugun autoa. Saltzaileak aurretik zerbait ordain dezagula eska diezaguke, konpromezua hartzen dugun adierazgarri. Autoa hitzartutako epean ekartzen ez badigute eta orduan interesatzen ez bazai- gu, saltzaileari ezin zaio eratzun-

kizunik eskatu, baina aurreratu genion dirua itzuli egin behar digu.

- ✦ **Prezio aldaketak:** autoa ekarri bitartean garestitu egiten bada, balio duen prezioa azkenekoa da, ez eskatu genuenekoa. Beharpen eta eskaintza bereziki gauza bera gertatzen da, epe jakin batzuetarako balio dute eta autoa emateko garaian bukatu badira jadanik ez dute balio. Gure auto zaharraren prezioak ere gora-beherak izan ditzake, berria jaso bitartean kalteren bat jasan badu.
- ✦ **Zigilua fakturretan:** autoa ematen digutenean fakturan eta garantian argi eta garbi azaldu behar du saltzailearen sinadurak, zigiluak eta garantiaren iraupenak; baita autoaren ekipamendua, zergak... Faktura eskatu behar da beti. ✦



# OPEL BEGIZ JO

Opel begiz jo. Alemaniako Ingeniaritzaren mundua duzu. Kotxe sendoak, erosoak, bizkorak, deigarriak. Zerbitzuaren mundua duzu, profesional onen esku dagoen mundua. Aldiak en eskutik jo begiz.



Mallabieta, 4 auzoa  
IURRETA (BIZKAIA)  
(94) 681 67 66 telefonoa  
Faxa: (94) 681 39 66  
Bilbo-Behobia autopista bazterrean  
17. irteera (DURANGO)

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK.  
ESPERIENTZIAGATIK ONENAK.